BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIAK

1. SARRERA

Bermeoko udalak, Behargintzaren bitartez, herriko enpresak sortzea eta ekonomia sustatzea ditu xede.
Pertsona ekintzaileek zailtasunak dituzte beren enpresa – proiektuaren bideragarritasuna aztertzeko abian jarri aurretik eta enpresa kudeaketa arloan ez dute ezagupenik.
Aurreko guztiagatik, beharrezkoa da udalerriko pertsona ekintzaileek kurtso bat egitea, alde batetik, beraien enpresa ezagupenak hobetzeko eta, bestetik, enpresa sortu aurretik kudeaketa laguntza edukitzeko.
Plegu honek baldintza teknikoak jasotzen ditu ekintzaileek behar duten kurtso horren prozedura oso irekia kontratatzeko.

2. KONTRATUAREN XEDEA

Helburua, Bermeoko ekintzaileei, taldekako ikastaroa ematea da.
Entitate bat kontratatzea da helburua enpresa – eraketarekin lotutako arloetan pertsona ekintzaileei erraztasunak emateko enpresa sortzerakoan eta arrakasta aukera gehiago edukitzeko.
Zerbitzuaren hartzaileak izango dira, Behargintzak – ekonomia sutapenerako eta enplegu zerbitzuak- arreta dezaketen pertsona oro, eta autoenpleguaren bitartez lanpostu propioa sortzeko interesa agertzen dutenak.

Kontratu honen xedea BFA-ko ekintzailetza sustatzeko diru laguntzari lotuta dagoen enpresa kudeaketa arloan formazioa eskaintzea da eta ez da aurreikusten xede hau duen beste formaziorik.

Helburua zehatza da: aholkularitza grupala ematea pertsona sustatzaileei eta beharrezko informazioa, metodologia eta laguntza profesionala ematea enpresa-ideiak egokiro orientatzeko. Kurtsoak aurrez – aurre edo mixto modalitatean eman ahal izango dira, betibe covid 19ko egoera kontuan hartuz.

Ikastaro bakoitzean gutxienez 8 pertsonak eta gehienez 25 pertsonak hartu ahal izango dute parte.
Prestakuntzak, besteak beste, honako eduki hauek izango ditu:

a) Negozioa, forma juridikoa, eratzeko legezko izapideak, baimenak, lizentziak, finantzaketa eta laguntzak, bai eta lan-arriskuak eta ingurumenekoak ere.
b) Finantzaketa: iturriak eta motak, eta kobrantzen

CSV: 07E50007674200V9P9O8P2V9J0

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E50007674200V9P9O8P2V9J0

Sinadurea eta datea
NERE MINTEGUI ELORRIAGA - 05/08/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/08/2021 11:25:57

EXPEDIENTE :: 2021KON_IOS_0004
Datea: 26/02/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

eta ordainketen kudeaketan ohikoak diren gainerako tresnak.

c) Tributazioa.

Prestakuntza honekin lortu nahi diren helburuak hurrengo hauek dira:

- Sentsibilizatzea ekintzailetza dela aukera bat lan egiteko.
- Ekintzaileen ezaugarriak zeintzuk diren jakitea eta jarrera ekintzailea garatzea.
- Norbere enpresa sortzeak esan nahi duena azaltzea eta oinarrizko ezagupenak edukitzea.
- Ideiak enpresa – proiektuaren oinarri gisa duen garrantziaz eta hori aldez aurretik aztertzea ezinbestekoa denaz jabetaraztea.
- Bideragarritasunaren azterketa – prozesuaren oinarrizko eskema.
- Informazio baliabideak interneten.

3. ZERBITZUAREN BALDINTZAK

3.1 Enpresa kontratistaren antolaketa eta baliabideak

a) Zerbitzua aurrera eramateko enpresa lizitatzaileak giza baliabide egokiak eta baliabide material eta informatiko nahikoak (bulegoko materiala, ordenagailuak, proiektorea etabar) frogatu beharko ditu. Enpresa kontratistak langileei enpresakoak direla identifikatzen dituzten bereizgarriak emango dizkie.

b) Enpresa lizitatzaileek erabili beharreko metodologia eta plataforma adierazi eta azaldu behar du.

Enpresa lizitatzaileak euskarri informatikoan entregatu beharko du zerbitzua aurrera eramateko beharrezkoa den materiala, baldintza administratibo 14. puntuan (exekuzio baldintza bereziak) agertzen den moduan.Besteak beste:

a. Baliabide material guztiak ekarri behar dituzte (ordenagailua telefonoa…)
b. Ez dute izango udalaren korreo elektroniko ez telefonorik
c. Ez dute izango udal txartelik ezta giltzarik
d. Ez dute izango intranetera sartzeko aukerarik
e. Udalak eskaintzen dituen ikastaroetan ez dute parte hartuko
f. Kontratutik kanpoko bestelako funtziorik ez dute egingo
g. Udal sailen arteko harremanak udal langileek izango dituzte, ez zerbitzu kontratuko langileek, salbu eta ezinbestekoa denean kontratuan adierazten diren funtzioak burutzeko. Horietan sailburuaren oniritzi formala beharko da
h. Udalaren identifikazio txarteletan ez dira agertuko

CSV: 07E50007674200V9P9O8P2V9J0
Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E50007674200V9P9O8P2V9J0
Sinadurea eta datea
NERE MINTEGUI ELORRIAGA - 05/08/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/08/2021 11:25:57
EXPEDIENTE :: 2021KON_IOS_0004
Datea: 26/02/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

i. Ez da agertuko udal langileen telefono zerrendetan, ez gainerako zerrendetan.
j. Enpresako koordinatzailea izendatu beharko da eta kontratuaren arduradunak koordinatzailearekin izango du harreman zuzena zerbitzuaren gorabeheren inguruan. Horrekin lotuta, Bermeoko udalak langileei ez die emango ezelako instrukziorik, ez du egingo zuzendaritza lanik; gainera, oporrak eta ordutegi eta egutegia koordinatzailearekin adostuko dira; Pleguekin bat zerbitzua bermatuta egongo da edozein egoeretan (oporraldiak, bajak…)

c) Sortutako dokumentazioa, ahal dela, euskarri informatiko bidez bidaliko da. Inprimatu behar den dokumentazioa nagusiki alde bietatik inprimatuko da eta paper birziklatua erabiliko da.

d) Zerbitzua euskeraz ematea bermatuta egongo da.Horretarako enpresa lizitatzailearen ikastaroa emango duen langilearen gaitasun agiria aurkeztu beharko du, eta hau ezin bada Behargintzaren eskuetan egongo da datu hau baieztatzea.

e) Entitate lizitatzaileak kontratua exekutatzeko pertsona arduradun bat izendatuko du eta Bermeoko udaleko – Behargintzako teknikari arduradunarekin koordinatuko da.

3.2 Irudia hedapena eta datu babesa

Txostenetan, dokumentazioan, erabiltzen den materialen eta zerbitzuari dagozkion hedapen – jardueretan zerbitzua ematen duen enpresaren, Bermeoko Udalaren (Behargintza) eta zerbitzuak aurrera eramateko diru – laguntzak ematen diztuzten erakundeen bereizgarriak jarri behar dira. Bereizgarri horiek bat etorri behar dute Bermeoko Udalaren irudi korporatiboarekin eta Udalak emandako jarraibideekin.

Zerbitzuko eguneroko lanean datu pertsonalak erabiltzen dira, eta datu horiek 3/2018ko Lege Organikoa (DBLO) eta 2016/679 Datuak Babesteko Erregelamendu Europarrari dagokion informazioa (DBEO) babestuta daude.

Lege hauen arabera enpresa adjudikaziodunek hurrengo betebehar hauek dauzkate:

- Datuak Udaleko datuen tratamenduaren arduradunak emandako jarraibideen arabera erabiltzea.
- Datuak kontratu honen xede ez diren helburuetarako ez erabiltzea.
- Datuen berri inori ez ematea, ezta gordetzeko ere.

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E50007674200V9P9O8P2V9J0

Sinadurea eta datea
NERE MINTEGUI ELORRIAGA - 05/08/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 05/08/2021 11:25:57

EXPEDIENTE :: 2021KON_IOS_0004
Datea: 26/02/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

CSV: 07E50007674200V9P9O8P2V9J0